




Bizkaitarrei Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



Landajuela, Anton III.



**Tropa faxistak Bakion sartu
ziranekoa (1937.05.09)**

Zorion eta urte barri on

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2012-2013 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 45. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 8an

45. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 8 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, III.

18.- GARTZA

Sail onetara dakardan josta-muetaren ize-
na batzuetan Gartza, bestetzuetan Garza,
be, ba-zan. Eta entzunik dot bein da biderrez
bilbotarrai, beraiek, eurak be jokutzen ebela.
Gurea bakarrik ez zan, beraz.

Arritxu zapal bat eta, arrasta edo posporo kutxati-
llen azal biak naikorik genduzan, gartzan egiteko.

Laukia lurrean marrastu, laukiaren erdian onen-
beste bana, azal bat bestearen ganean ipiñi, neurri
artu batean marra egin eta andik arria jaurti lauki-
ra, kutxatil-azalak ataratzera.

Arriaren joagaz zenbait atera lautitik, areik irabazi
Jaurtitzen genduan arria gelditzen zan tokian gel-
ditzten zala, berea jaurtin arte azken zanak ezin
artu geinkean; eta jasoten bagenduan, gurutz bat
eginberrra izaten genduan, egoan lekuan lukikeri-
rik ez egiteko bigarrenezko jaurtitea, ba, arri zapala
geldirik egoan leku bertatik egin bear zan da. Egin
eta jarrai, bat bestearen atze, laukian zirenak amaiu
arte.

Kutxatillen azalen izenak batarena TXOTA, bes-
tearena SANTO bardiñak etzielako.

Gartza-garaian, olloa landan zomorro billa ibiltan
dan lez ibiltan gintzazan gu be: arduratsurik, kutxa
utsituen bat non aurkiturk.

Jokoarren bat, iñoiz, bi be bai, beti genduan pra-
ketako sakelean artarako gogorra be, beti gerturik
edozelako ordu ta bazterretan jostatzeke.

TXOTA ta SANTO, SANTO ta TXOTA lapiko
zar eta txoletetan gerdetan genduazan, ganbarako
tellape ta ormazulotan aldi barriaren begira.



Ainbeste arri-takada arturiko TXOTA-SANTO-
rik asko, asko bere asko, zapuzturik eta baltziturik
izaten ziranaren, urre balitzan gordetan genduzan.

Esan daroadan lez, arri zapalak izaten ziran jaurti,
jo, atera... gartza-jokorako; baiña arriaren ordezeko
burdin egokirik eukanak, bakaldunkumea zaldi-
ganean bezain andia eta zoruntsuagoa izaten zan.
Alako burdiñaren begira gengoan beti, mokaua
jaten diardun nagusiari bekaitzez adi izaten dan
txakur gosetia lez.

19.- KINKIN

Orain arteko jokoak aiña sustraiturik ezegoanarren,
ordu ederrik emoten genduan onetan be. Geroago
besteak beste sustraiturik ezegoala diñot, eta ezaren
zioa emen: Kinkin-lurra, joko-lur berenbegikoa iza-
teko lur biguna izanbear, taketa sartuko ba-genduan.
Elizpean, onen inguru-minguruan, feri-lekuan, pla-
zan edo beko enparantzan, San Antonio'ren ater-
pean, ez genduan aukerako leku egokirik.

Lur-mamia bear zan, bustinkia ba-san obe; idor
ba-zegoan uraz busti, urik ez bazan txixa, taketa
ondo sartu al izateko.

Arra biko luzeak ziran taketak, mustur bat zorrotz burdin-taketen tajuzko izaten ziran.

Jokoa zertan zan: Taketa egotzi, al zanik sakonen sartu. Bigarren izaten zanak be, bardin; baiña bide batez tente egoana jo, etza arazi ta berea zutik jarri.

Zeinbat biderrez izaten ziran 3, 4, 5...taket, bat bestearen zayetsean, eta azken zanak berea jaurti eta bustiñean sarturik ipintean, lenengo zanak bereari eldu, atera eta tsas barrien-barri lengo tokira zutik egoazenen gañera, eta bidenabar bat edo besteri etzaun arazorik.

Lur egokia aukeratu; busti, jaurti, atera, jarrai eta ekin, a bere jostabidea zan; KINKIN.

20.- TRONPA

Emen aldamenean agiri dan irudia lakoa zan TRONPA izeneko jostagaillua.

Argitasunez esan ezin dotan zera da; salokietan salgai ipineten ebazenean izaten zan tronpa-denpora, edo tronpan ikusten ginduezanean salgai jartzen ebazan. Zan moduen zala, tronpa-denpora.

Tronpa zarra, joan zan urtekoa galdu barik euketak izaten ziran lenengo asten ziranak, aldiari josteta barriztua, egun gitxi batzuen buruan, danak ez, baiña geientsuenak bai, tronparen egarriaz gintzazan.

Eskolatik berako bidean aurrez Ageda eta Josepa-ren ESTANKOA eritxon saletxea, etxe zarra, illuna, danateriko salgaiez betea; oñetako, taloburdin, argizai, jostorratz, lurrezko pipak; arkatx, idazkortz, ingurrazti, urolo, tillista, gozoki, kebedar abar eta abar eta milla abar....



Tallista zorroaren gañean katarra lotan, intzigarri zorroan, aletartean, katuemea kumeak azten, goiazpian salgaiak dindiliz erosleen burua joteraiño; erakusmaia, mostradora alde batetik bestera erosteko gaitasunik ez euken diruz, erdi-erditik untzez jositako diru "faltsos" beterik, alakoxea zan Ageda eta Josepa-ren estankoa.

Geu giñan baiña nagusiagoak bialdurik zeinbat biderrez izan ete giñan "propina ta pitantzaren" begira. Txakurtxiki bat izatean eta idazteko arkatza bear, bera baiña txikiagoa bialtzen eban estankora arkatza, "propina ta pitantzaren" billa. "Propinarik eta pitantzarik" ez euskun iñoiz emon, egonaldik egiñarazoteko luzeroan euki bai, eta iñoiz belarondokoen bat be bai.

TRONPA ta berari egokion lokarria kana bat kordel erosteko iru txiki, iru txakurtxiki naikorik genduzan. Gaur egun iru txiki uzkeri utsa, orduan baiña dirutsa andia. Zer egin geinkean? Al ebanak erosi, ezin eikeanak arrausi. Oraingoz baiña erosi ta arrausi itxi daiguzan beste baterako.

Aizkora txikia esku batean eta zur zati bat bestean, an izaten gintzazan mutil-koskorak, etxaurreko mokor tartean, edo kantoi gabeko leorpean geure tropagintzari loturik, etxegillea etxegintzan baño arretatsuago.

Zurari emendik txiki ta andik txaka, goitik atala kendu, begiraturik begiz neurtu..., kendu egiok emendik...burualdetik be bai piti bat eta zorrotzu egiok musturra.

- Mekatxis lamar! Ertzeko balio txikiegia dok-eta.
- Ea, beste egur zati bat. Zuok be, untze bat topeizue
- I, Patxi, zuen aitek etxekok formoirik?
- Bai, gure aitek bai, atzo be ibili yoan-da, kortatxia egiten.
- Ekarrrik, ba
- Bai, da gero, yakingo bayok yakin?
- Gero diñok! Tronpea egin yeiguan lenen bai, ta gero... otz eztana bero.

Zur-zati bat, beste bat, emendik kenduyak eta ortik ez.

Lengoa txikiegia egin dok-eta, oraingo au ia obeto egiten ba-yoguk. Egundo santa, tronpa bat ezkeinduan egin, dantzarako gai zanik.

Egin, ez; egin ezkenduan egin, baiña tronpa-eguntan izaten genduari ordu eztitsurik.

Tronpa-kordela.- Txakurtxiki bat, goiti jota bi, naikorik izaten yakun kana bete lokarri erosteko. Baña nork izan bera? Nork artarako bear genduzan sosak? Zer egin geinkean?

Saku zarrak altzitu, atzartean biurtu-eta, lokarria egin.

Danok gintzazan kordelari, baña ondo egin, eresia izaten zan lakoa ondo ta txukun egiten ekienak gitxi batzuk baño ez ziran.

Iru muetakoak izaten zian tronpak; “boa”, “dardaxa” ta “erdikoa” (arranta).

Boadunak, norberagaz erabilteko andiegia ziralako edo, gitxi izaten ziran. Boa baña; boa izaten zan, tronpa erregea.

Dardaxa; Luzangatxoa, dantzari ibiltaria, artegea. Artegetasunetik eta dardar ibiltetik etorkorren DARDAXA.

Erdikoa dardaxa baño motelagoa, laburragoa, biribillagoa ta politagoa.

Boaren dantzaldia iraupen andikoa. Lo egitean eukite eban garrantzia, olari josirik ba-legoan; lo-urumatzua egitean genkian dantza egoala.

Tronpak, aria ta aritik egiten genduzan lokarriak, zaku zarrak, aizkora ta zurak, danak ziran nonbaitera.

Leen baño erri andiagoak ez diran errixketan ba-dago non jolasturik. Umeak baña, baña umeak non dira ba, ez da ikusten jostatzeke ume azkorik. Galtzapean ikasgaiak dabezela, goizetik gauara or dabilkiguz etxetik ikastolara ta ikastolatik etxera, udaldiko opor-egunak noiz etorriko diran begira, jolaskontuan ezer gitxi egiteko daukieta.

21.- IZERREAN

IZERKA ibiltean eukan izena IZER, jartze onek.

Izerka egin, edo-ta izerka ibilte onek amar lagun, zein ogei naiz ogetabost artzen ebazan. Batzuetan geiago, bestetuetan gitxiago, ez egoan zeinbat izan eteikeazan araurik.

Amar bat izaten gintzazanetan, iruen bat izaten gintzazan areitzondoa zaintzen, beste zazpirak igesian joaten ziran jagoleak amar, amabost, ogeien bat zenbatu arte.

Bein zenbatu ezker, ba-etozan tximistaren aizean arrapatzera, ibilte andiak egiñez arrapatzen eben bat eta, areaitzera eroan. Arrapalariak atzilotua jagon

bear, ikutu barik, eta atzilotuak esku bategaz areitzari ikutubearra izaten eban.

Eta an egoten zan areitzondoan beste loturiko bat ekarria arte, gero beste bat, eta beste bat, dana areitzondora ekarri arteño.

Lenengoa eskuaz areitzari ikuturik, bigarrena lenengoi eta irugarrena bigarrenari, eta olantxe danak batek besteari eskua emonik.

Areitzean loturik egozenai, azke zanak ezin egin eban “izerrik egin”, au zan eskuak ikuttu; baña batzuetan bi, iru ta geiago etorrik, eta jagoleari marro egiñik eskuan ikutu eta “izar” esatean, danak askatzen ziran eta bakoitzak alan igesi. Batenbat an geratzen zan txakurren aurrean basurda nekatua lez beste bat ekarriarte, eta beste aske zan batek “izar” egingo eutsan arte.

Tronpa izaten zan, jostalluetan erosten genduana, beste jostallurik ezgenduan ezer izaten.

22.- FUBOLA

Egiten genduan fubolik be, pelota ederrik izan ezarren. Soñeko zarrez eta trupu zarrez biribiltzen genduan pelota antzerako zera, baloia.



Gaur aiña arau ezan izaten, ostikopelotan giñanentzak; alde bakoitzean 5, 10, 15 naiz 20 naikoa izaten giñan ostiko-jokoan ekiteko. Atezaña izaten zan zeregiñik egoikienduna, besteak pelotea

non, an ziran danak.

“Mano”, “penalti” eta alboertzetik eskuz ateratzea izaten ziran uts nagusiak. Beste guztia su ta garra zan ainbeste motikoren artean pelotarik be ikusten ez genduala. “Kanbio de campo” be ba-geunkan.

23.- PELOTA

Eskupelotarako toki egokirik ez genduan izaten. Elizpean egiten genduan ateak eukazan edergarriak joaz, azpeltu arte.

Amaren gona zarraren zatiz, artuledun kaltzerdi zarrez, beste gaien batez biribilduriko pelotak izaten ziran.

Pelotatzaz kondaira andirik ezin esan naike.

24.- TXORIAK

Udaberria, abiak, txoriak.

Txorrotxio dagi txoriak, zugadiak orri barriz jazen, bedar orlegiz landak, sasieta pilpil biguna, bizitza barriaren sorkundea. Txoriabiatara egiteko eraturten gintzazan bi, iru eta iñoiz lau be bai.

Iturrira joanez eberdietan bidean izaten ziran sasi zuloak arakatzen, mutillak giñan; ez txindorrek eta ez amilutxak ezeben zulo ezkaturik izan. Txoria non ebillan, nora joaten zan eta nondik etorren jakitea garrantzi andiko arazoa izaten zan; baña beste taldetxoa, alkarregaz batean ez giñan bizi izaten da, gu zaintzen orreik, ederto areik zaintzen gu, or izaten zan untzea.

Zalatariak be izaten genduzan. Onein eginbearra zera izan eikian abia non zan jakin, batez bere abi bitzuk eta irutzuk jakitean, ze egunetan ala goizez edo arratsalde artzeko asmoa eben jakin, ori zan ba, zalatarien eginbearra. Ordain-saria, txorikuma bat.

Bein batzutan, beste iñork jakin ezean, luma-luma egiñik ziranean jasoten genduzan, baña nork noiz artu izaten giñanetan.... zenbaitzuk lumarrotan bere.

Etxaurrean banaketa, eta txoriak etxera egunen bat -bat birako.

Artourunezko oreka ta esnezukua izaten ziran txorikumen janari zomorroz bizi zirentzat eta darentzat. Zozo ta birigarroentzat arrak eta marrakilloak bere bai.

Txori txikiak goren baten jota bere, egun bat, edo -ta birako bizi eben. Zozo ta birigarreoena barriz lau-bost egunerañokoa, eta jaten ikasteraño bizi eukanaz askoen artean, gitxi batzuk besterik ez.

Etxeinguru-minguruko makatzan batean izaten ba-zan gardan-txori, beste txori txikien batzuk, abia kaiolaraturik eta zugatzetik aldatuz etxeko leioraño amek ekarten genduzan, eta aita-amakazi. Emen bere zori txarrekoak gintzazan. Jaten ondo ikasiz gero, perejilla emoten eutzalako amek, katuen batek erpea jartzen eutsalako, atea zabalik izteagaitik... Agur gure txorikumak txoak!

25.- KARRAMATOA (GOITIBERA)

Zur utsez egiñekoa izaten zan karramatoa, goitibera. Txirinkatarako gai zan zuragaz iru txirinduna, jostallu berezia. Lepoan arturik leurkiburuko basora joaten giñan eta beraren ganean jesarrik aldapan beera jatsi. Gorantz izerditan, berantz aizetan, zeregiñik naikoa izaten gendan geure buruari naitasunak egitean.



26.- TRANBIA (TXIMISTBURDIA)

Zeanuri-tik Bilbo eta Durango-rako joan-etorrian ebillan burditzar andi-andia. Ganean, tellatuan bi buztanduna. Alde baterantz ibilterako buzten bat jasoten eutsion bide danean egozan tximistarietara, bestera egiterakoan barriz, eta jatsirik izaten zana arira goratu.

Gizaldia, aza ta porru, esneak, txarriak, txalak eta iñoiz-iñoiz, beian bat be bai, izaten zan guztientzat toki egokiena.

Beste gauzarik ezan izaten non ibilirik-eta, bertara, tximist-burdira joanbearra izaten genduan.

Igorrebaso-ko asto txikiak gabean azke izanik ea Gezala-ko soloetara jasten ziranak, ainbat izten ebazan lurrean zerraldo ilik.



Izaten ebazan erri baten eta bestean, bere orduak, iritxi baiña ariak jausten ziralako, bidetik urten da indarririk etorten ez jakolako, ez eban izaten ordu ziurrik nora edo ara eltzerako.

Tramakulu onen joan-etorri zaintzen ebenak Igorre-ra, Zeanuri-ra ta beste erri batzuetara deika, urrutizkiñez deika emoten eben eguna, urten ba -eban ala ez jakiten. Eta erri batetik urregorako bitartean galtzen zanean, zer? Eguna bazan baioazan, makurgunetan arkar ez joateko oarturik. Gaua izaten be, bai-oiazan, eta makurgune batera eldu baiño lentxoago gelditurik, diruaz ibilten zana, ko-bradorea jatsi ta makurguna aren bestaldera joanik arrasta, posporoa biztu eta dei egiten eutson, dagiala aurrera, bidean trabarik ez eola-ta. Oarrez eta oar barik, izaten ebazan alkar joteak.

Buztanaren musturreko kirrinak aldatzean bera etorrela aritik urtetan, inpernua argitu eikean an izaten ziran su-tanta eta txatarrez. Ara jausten zanean barriz, txapelaz eldu eta baztartzan eben, su ta garretan, txipriztin da txatarretan.

Gizaldi onen lenen urteetan egin zan tximistburdiaren askundeia orain urte gitxi dirala bezterreraturik gorazar andi baten bidez. Eguneroko lana itxi eban Arratiburdia, urak eroan eban, jayak egiteko izan zan artatik.

Beste jolasketa bat.

Elizako. Jolasa baiño eliz-jaya geiago zan: Judas iltea.

Goizean mai andia elizpean iminten euskuen, eta egunak lenago asten gintzazan bakoitzak al ebana egiten; zurezko maillu txikiak, andiangoak, politak, ganorabakoak, eta karrakak.

Etortzen zan ordua eta danok gengoan gerturik. Judas ilteko. Malludunak maiari malluka su-ta-ke; karrakadunak esku batez bein, eta au nekatzen zanean besteagaz, karraka jotearen abarrotsaz ezer entzuten ez genduala. Txarto egiñaren zorrik artzen eban Judas gizagaioak, oeratuko zan arte gau artan.

Judas bizi ete-da ba?. Oitura ori amaitu zan.

Amaika bagara orain bere, Judas direnak eta eztirenak ilten diardugunak.

Itxi daigun mundu barri obe bat alde batera, euren-
tzako egiten diarduen orreiri. Oraingoentzat, gero-
koentzat, gero bere geroengoentzat izango da-eta,
zer apurtu ta zer barririk egin.

27.- MARIA-ren ALABAK ETA LUISTARRAK.

Oitura andia izan zan, oitura garrantzitsua illean
bein domiña lepotik dindiliz jarririk, Jaunartzea.

Baigintzazan Luistarrak bere, mutikoak, illero Jauna
-artzen genduanak. Maria-ren eta Luistarrek, danok
gintzazan illeroko oitura bete bear genduanak.

Lenago amaitzen zan Luistar izatea mutillentzat,
17, 18, urteko izatean gizontxo agertzen ziran-eta,
ortik letorkien Luistar izateri itxi eta gizonen al-
derdira, gizonen taldean sartzea.

28.- TXANTELA

Gizonen alderdiratzen ziranak azke egozan illero-
ko Jaunartzetik, loturik egozan baiña beste lokarri
batera: Txantel. Txartela artzera. Urtean bein bider
joaten ziran abadearengana, kristau-ikasbidearen
azterketa egitera.

Ikasia aztu bayakien, edo-ta geiago ikasi ba-eben
eliz barruan naiz elizpean umekeririk barik izaten
ziran, batek itaundu besteak erantzun; erantzun da
itaundu txantela eskuratzeko aiña itaun izaten zan.

Kristau andia, benetako kristaua izaten zan txartela
bereganatzen ebana. Eta lortzen ezebana, zer ete
-zan? Aldi artako abadeai, zerua ta inpernua bes-
terik ikusi ez nabaitzen ezebanai argibidea eskatu
bearko geuskio.

Len txartelaz eta orain txartelik barik, zeru-inper-
nuak lengo lekuetan ateak zabalik.

29.- UGER-EGITEA

Janbarritan urreratu zalako, eguzkitan geiegi ego-
teagaiti, berantzako ta beste naiekotxuen bat izan
ebalako, bai itxas-ondarretan ta bai erreka-ertzetan
illik eta itorik izaten da.

Gu, ba, orduko denporetan eguzkia pilpil izaten
zan egunetan goizetik gaberaño gengoan uretara
sarturik: bazkaldubari, bazkalaurrean naiz baz-
kalostean; sagarrak jan-da, utsik naiz beterik izan
sayetsarte, ugelaxoak ba-giñan lez, beti uretan
gintzazan. Gaixotu orraitio iñor bere ez. Izaten
genduzan berantzako ta kakapirriak, loratik arako



sagarrez etorrenak ziranak, baiña sasipean barrua ustu eta urrengo sagarrondoan barriro bete, olan emon genduan umaroa.

30.- AMAREN AZARIKERIA

Arenbeste uretan ibilteagaitik belarrondokorik arzen genduan, baiña irrintzi batzuek egiñez gero lagun bateaz alkartzean, dana egoan aitzurik.

Urtubi-ko oxinean goizez, Olabarri-ko presan arratsaldez, Olabarri-koa ezanean Manuel Torrekoaren oxinean, da Sigurdui-ko presapean, lau leku oneik izaten ziran erriburuko umeen igeri-tokiak.

Oraingo andrakoak mundurik erdia ikusirik eta beste erdia ikasirik daukielako, ama areiri adarra joteko, ikasiak eta ikusiak birritan geitu bearke.

Amaren malizia, azarikeria atorrea mutikoari zintzurrean jostea izaten zan. Atorrea soñean gorantz biribildurik, eta prakak eta espartañak erantsirik, uretan da uraren alboan izaten giñan.

Etxean izatean, da ibaietatik ur begiz ondo ikusteko eroan, samakoa ondo ba-egoan edo ez ba-egoan, ez euskun begiratzen.

Ai, baiña, etxeik urrunduten ba-gintzazan... gero etozan eguzkia ta euria; nork igarri euri ba-zan ala eguzkia izango zan?

Korapilloa azkatzen ikasi genduan amaren begiak beti zur eta ekin andian. Begiratzen euskuen da gero KORBATA geldi. Biar bere bardin, okotzpeko txilibixta lengo tokian.

Egun batean baiña begiraturik ondo, an ikusi eban amak, semetxo aingerukia, okozpean zer edo zer egiñik ebalatzen.

Jausi zan mutikoa astoaren gañetik, artu bear izan ebazan iñork artu ezin eikeazanak. Ikubilkada, ostikada, eta eskuaz emon ekiozan danak eta guztiak. Jostorratza ta aria andik aurrera ixilka norberagandurik-eta, ondo josten be, ikasi eginbear, batek bes-teari.

31.- NESKATIL UGERLARIAK

Neskatxirik be ba-egoan ugerzalerik, iñon ziran zulo ta abarpean ostentzen ziranak, mutilik izaten ezan uger-tokietara joaten ziranak.

Ganbara bazter txokoan baten amak itxiriko gona zarren batzukaz ornitzen ziran, alboetara so-egin

mutilik ba-egoan ikusteko-ta, uretara joaten ziran aratak ba-liran, uretan txipli-txapla egitera.

Andrazkoak burutik oñetara gona zarrez jantzirik, eta mutikoak, ostera, arkondaratxoa, prakak eta oñetakoak arri ganetan lagarik.

Eskenduan izaten ara ta orra begiratzetik. Geunkezanak kentzen genduzan da, esku biakaz ankar-tea ezer ez erakusteko gorderik, alan joaten gintzazan uretara.

32.- TXITXIBURRUNTZI, BASOKOIPETSU

Egun bateko jaia, arratsaldez izaten zan jai au. Igande bat lenago, edo bi geroago, berrogeikaroz (garizuma) ebillan baso-koipetsu.

Egunak lenagotik asten giñan nora zergaz joan, zer egin da eguna, arratsaldea zelan emon.

Olabarri ta inguru urbillekoak Montxogan-en egon zan pago bakarrera giñoiazan. Arrautzak, urdai, lukainka ta txistor geugaz eroanik, bakoitzak al ebana.

Sua egin bear zan, su barik ezer ezin egikean, sua izaten zan gatza ta piperra jaiari emoten eutsana-ta.

Sua egiten genduan, ba, eta arrautzak suan gogortu, urdai ta txistorrak zotzean erre, ta arratsaldea geure bizkar izaten genduan orain dan fubolari, ostikoketarieiri begira ta so eta itxaroten egonbearrean.

Nagusiak be egiten eben jai au. Oneik mutil-koskorak baño urrunago batzuetan, urrago be bai bes-tetzuetan, taberna zuloen batean be bai, eta elizara egun artan iñor bez.

Oitura oni ondoen loturik Arantzazu izango da. Argiñao ganeko Adrian Deunaren basatxanoa izaten jake begiko.



Bakioko ibarra



TROPA FAXISTAK BAKION SARTU ZIRANEKOA (1937.05.09)

Aurten bete dira 75 urte gure erria faxisten eskuetan jausi zana. Gure sasoiko gazte eta elduen artean ia ezezagun dan jazokerea dogu ordukoa, guretariko askok zaarri orren inguruan inoz zeozer entzun izan arren. 1936 urterik 1937 urtera bitartean gure artera ekarri eben guda anker atako beste jazokizun asko lez areantxu lotu da aaztuta berau, gomuta azpian lotu be. Asagoko, aspaldiko egin jaku, aurki. Alan bada, utsune ori zeozelan arteztu gurean, urrengo lerroon bidez, labur-labur bada be, aren barri ekarri gura geunke zuokana.

Guda lerroa geroago eta parajeago egoala, **Bakioko** udalak, **Urbitar**teko Leandro Oraindi alka-tea buru zala, agindua emon eban 1937ko maiatzaren 1ean erria utsitu eta Zallarantza iges egiteko¹.

Maiatzaren 8ko goizaldean, Bermeoko Agirre auzotik **Burgon** eta Arana auzotik **Matxixakon** gora etozan indartsu Frece Nere tropa italiar-es-painiarrak **Bakiorantzako** bidean, euskal tropak

atzeraka joiazala. Egun beratako arrastiko 5.30etan lortu eben Burgoganera eldutea, andixik **Matxixakora** joateko asmoaz. Arrasti beratan zabaldu ziran, bada, batetik, Arballo eta Oruezarretarantza, eta, bestetik, Landaluze, Goienzabal eta Garbolarrantza, Sollube iparreko mendikatean barrena, baia **Matxixakon** sartu barik.

Urrengo egunean, maiatzaren 9an, domekaz, goizeko 8.15etan, jausi ziran **Matxixakon** egozan bateriak euren eskuetan, bertan inor ez egoala². **Matxixakoko** bateriak koiu ostean, asi ziran tropa matxinatuak **Bakiorantzako** bidea barrian egingen. Frece Nere izeneko guda-taldearen 4. erregimentuko tropak ziran. **Bakion** sartu ziran, bada, San Pelaiotik bidez bide beerantza etozan tropak orreek, goizeko 11.30etan. Errian tropa faxistetan leenengoak sartuten izan ziran areek. Era batera, Mañutik urten eta Andramarietaganerantza jo eben beste tropa batzuk. Andramarietaganegaz jaubetu ostean, andixik Elorrieta eta Goikoetxe

albotik beera joanda, arik eta Mungiarako bide nagusia ebagi artean, sartu ziran **Bakion** Melillako eiztarien B batailoiko konpainia bi (“Tabor de Regulares” izeneko moruak)³.

Errian sartu eta ordu betegarrenean, **Iatako** bizkarregino eldu ziran tropa matxinatuak. Onetan guztionetan, faxistetan 8 ildako eta 39 zauritu suertau ziran. Euskal gudariak eta milizianoak **Iatarantza** atzera eginkeran, euren lerroak eusteko egindako aaleginaren ondorioa, atan be.

Faxistak idatzitakoa

Soldadu faxistakaz batera sartu ziran **Bakion** kazetari faxista batzuk be eta eurak idatzitako lekukotzak ona ekarriko doguz jarraian. Gudatean, irakurleen biotzak gogoberotuteko ekintza eta jazokerak puztu egiten dira arean eta sarri, euren alderdikoentzako gauzak beti ondo doazelako itxurea emoteko, jakina.

Alan bada, eurretan leenengoa, ABC egunkariko Sevillako barriemoilea zan José Goñi. Beraren lumatik jakingo dogu zelangoak izan ziran asikerako ordu areek. Euskeraz biurtuta⁴:

“Domeka goizean, goizeko 11.30etan, sartu ziran gure soldaduak itsas bazterreko **Bakio** ize-

neko erritxuan. **Matxitzako** lurmusturra aurreko egunean, ilundian, koiu eben. Ordu betegarrenean, **Iatagino** igan eben, bertatik ia arrika jo leitekezala Bilboko itsas adarra eta portua.

Bakiogino joan nintzan gure tropen atzean. **Matxitzakon** lotu nintzan. Bertan itsasaldeko bateria bat egoan, arerioak atzean itxita, denporarik ezagaitik, aurki. Kainoiak urrengoau euken idatzita paparrean: TRUBIA, 1890.

Egundokoa izan zan geure tropak **Bakion** sartzekoa. Brigada Mistoko tropak ziran, eurretarike geienak Extremadurako boluntarioak. Erria jago ten egozan lau batailoi gorriak **Iatamendira** egin eben anka aurreko egunean, euren zoritxarra dala-eta, birao-urtika, danagaitik eta danaren aurka egundokoak esaten, biotza galduta. Egun bi leenago miliziano bi fusilau ebezan jagonleku jakin batera joateari uko egiteagaitik. Beste miliziano bategen oinari egin eutson tiro ume eta andra batzuen aurrean, beroneeri ori egiteko errazoa esan eutsela: “Olan ospitalera eroango nabe eta egun batzuetan, beintzat, baketan egongo naz.”

Bakiok udatiar geiago daukoz bertako erritarak baino. Azken oneek ia geienak iges egin dabe. Geienak separatistak ziran. Areek, baia, bederatziz

Elexalde auzoa eta Soloburu, Kopelagane, Azkarreta eta Arritxugane mendiak atzean



ilabetean itxaroten egon dira askatuak izan artean. Batzuk ordurik ostenduta bizi izan dira, bitarte guzti onetan ziurtasunik ezak eragindako larritasuna bizi izan dabela, baia bein be itxaropena galdu barik. Gure tropak errian sartu ziranean, ogi zuria oneri eta areri emoten sartu ziran. Ostenduta egon ziranak leenengoak izan ziran agirian urteten. Euren lagunak oztan-oztan ezagutu ebezan. Euretariako bat, Tradición (falangismoa) dalakoaren izen andiko zabaltzailea izan zana, Manuel María Arredondo, ia 20 kilo argalago egoan. Guda mutileri banderea eskuetatik kendu eta areri munda asi jakozan, urte askoan ama ikusi barik, amari musua emoten jakon lez. Ikuskizun zirraragarria izan zan a. José Goñi”

Donostiako LA VOZ DE ESPAÑA egunkari karlistan antzeko gauzak idatzi ebazan soldadu faxistakaz batera **Bakion** sartutako beste barriemoile batek, beronek leengoak baino jakingarri geiago emoten deuskula. Euskeraz iminita⁵:

“Sollube mendiko iparrean legionarioak aurrera egin eben Bermeotik urtenda, **Matxixakon** zear eta **Bakio** Basigo erria atzean itxi artean. Legionario falangistak **Matxixakon** barrena, itsasoa alboan eukela, **Bakior** antza egin eben aurrera. Goizean sartu ziran **Bakion**. Gorriak maiatzaren 8an beratan iges egin eben, **Matxixako**ko lubagiak utsik itxi ebezala. Bertan zapatu beratako egunkari zatiak topau

ebezan. Gorriak lau kainoidun itsasaldeko bateria bat eta beronentzako munizino ugari itxi ebezan atzean. Ilabete batzuk leenago imini ebezan bertan. TRUBIA izeneko etxeak 1890. urtean egindakoak ziran. Falangistak **Bakion** sartu ziran eta **Iata** mendian gora egiten asi ziran. **Bakio** biztanle batzuk guda mutil falangisteri ondo etorria egin eutseen. **Bakion** eskoitar errefuxiatu asko egoan. **Bakion** barrena baitailoi gorriak, au da, ITXASALDE, MEABE eta SAN ANDRES eta diziplinarioetariko bat, atzera egin eben, maiatzaren 8ko gauera artean egon ziran errian bertan. Zapatu gauean **Iatamendiko** jaigon lekuetara igan eben. **Bakio** udalak zortzi egun leenago egin eban anka errotik, Zalla errian barrian udala eratuteko. Erri funtzionario guztiak bertara eroan ebezan. Ez zan errian euretariako bape lotu. Argi-indarra kenduta egoan. **Bakion** egozan errefuxiatuen artean abadeak eta beste eleizgizon batzuk be baegozan. Bilbotik ospa eginda, bertan ostendu ziran, CNTkoen bildur, aurki. **Bakion** etxe guztiak oso-osorik egozan. Tiro otsak birritan baino ez ziran entzun ordurate, eta eurok aurreko astean, atan be. Donostiatik iges egindako batzuk **Bakion** euki eben gordelekua, komentu baten, euki be. Egia esanda, **Bakion** ez zan egon goseterik. Esnerik eta arrautzarik ugari baegoan etxaldeetan, osterara, ez egoan ogirik, ez oriorik, ez eta bear-bearrezko ziran bestelango jakirik. Areatzearen ondoan baegoan

Rosarioena, Felieta, Quintatorre etxeak, Tallu eta Iata mendiak atzean





Solobarru etxea, Arrilabanaga lekua eta Belategi mendia aztean

kooperatiba eran abertzale ospetsuak egindako bizitzetako etxe bat.

Tropa falangistak **Bakion** sartu ziran domeka eguerdian, basoetatik etozala. Gorriak leenago iges eginda egozan. Errian bertan ez zan egon burrukaldirik, ez eta tiro artu-jaurtigirik. Leenengo-leenengo Brigada Mistoko brigadista moltso bat sartu zan errian, euren burruka banderak agirian ebezala. Erriko biztanle batzuk amaibako poztasunaz artuak izan ziran soldaduak, Espainiako banderari gur eginaz. Iru gizon belauniko imini ziran aren aurrean: Olaskoagatar anaia biak eta Manuel María Arredondo jauna. Irurok erriko etxalde baten bederatzi ilabetean ostenduta egon ziran. Falangistak ogi zuria banandu eben erritarren artean. Bizkai eta Gipuzkoako gobernadorea zan Arellano jauna eldu zan bertara, soldaduak errian sartu eta gitxira, erriaren ornikuntzea eratuteko. Domeka goizean beratan Bilbotik etorritako txirringululari bat eldu zan **Bakiora**, guda lerroak zearkatuta, domekako egunkari bat aldean ekarri eban.”

Donostiako UNIDAD egunkari falangistak auxe ekarran soldadu-barriemole zan batek idatzitakoa. Euskerara ekarrita⁶:

“**Bakio** konkistauta. Erria goizeko 10etan konkistau genduan. Arerioak arin-aranga egin eban **Iatamendiko** lubagietan gordeteko. **Bakiok** ez eban ikusi gorri-separatistak eragindako bildur-ikara ankerrik. Bilboko bide nagusiagaz bat egiten dauan erriko bidearen alboetan txaletak ikusi leitekez an-or-emenka. Onek itxita egozan eta ez zan eurentan kalterik edota lapurretarik egin zanik ikusten.

Erritarrak geienak borondatez egin eben iges erritik. Beste batzuk Gipuzkoara joan ziran euren senitartekoen barri eukiteko. Bidean umeteria txikerra ikusten zan, sei-edo ume besterik ez. Abade jesuita bi ikusi ziran. Beroneek oiko bizitza egiten izan eben, mezea emon eta bestelango eleizkizunak egiten izan ebezan ezelango eragozpen barik. Jesuiten udako egonlekua itsasoari begira, etxunduta antzean, eginda egoan, Basigoko areatzen, atan be. 1936 irailetik aurrera Gipuzkoatik etorritako errefuxiatuentzako aterpetxe eran biurtu eben. Andik iges egindako berrogei familia bertan aterpetu ebezan. Etxearen inguruko lorategietan egozan zugatzak ebagi ebezan orretarako.

Iatako inguruetan ez zan ikusten espainiar soldadurik. Ostera, patruila gorriak ibiltzen ziran ara

ona. Falangistak etxaldeetara joaten ziran gudarako mutilen eske edo bila. Bide nagusiaren ezkerreko bizkarrak faxisten eskuetan egozan. Erregularrak erasorako prest egozan. Gaua baketsua izan zan. Andixik eta eundaka metro batzuetara **Iatako** igokerea egoan. Burruka gogorrek egongo zirala emoten eban. Zaurituak menditik beerantza andetan ekarten ebezan. Larrien egozanak anbulantzia-kamioietan eroaten ebezan.”

Azkeneko lekukotzea PENSAMIENTO ALAVES egunkari tradizionalistako barriemoilea zan Jacinto Aizpuruak dakarsku. Guk euskeratuta, barriz:

“Zapatuan jakin zan **Matxixako** lurmusturra nazionalen eskuetan egoana. Domeka arrastian kamioneta bat eldu zan Bermeora Bizkaiko gizarte onaren gaztez beteta. Gazteok ostuta egon ziran eta nazionalen alderdira **Bakiotik** igaro ziran. Andixik, **Matxixakotik**, urten eban, tropa nazionalak bertara sartu baino leentxuago.

Matxixakon lubagiak utsik toupau ebezan. Oindinokarren, zapatuko egunkari batzuk ikusi eitekezan bertan. Ganera, itsasaldeko lau kainoi eta eurentzako munizino ugari itxi ebezan atzean. Kainoiak ilabete batzuk leenago imini ebezan bertan. Kainoiak TRUBIA 1890 idatzita euken paparrean. 10 ½-ko kainoiak ziran.

Maiatzaren 8an, tropa gorri-separatistak **Bakion** sartu ziran atzeraka etozala eta **Iatamendira** igan eban zapatu gauean, nazionalakandik igeska, beroneek **Bakiorantza** aurrera egiten ebelako. Lau batailoi gorri-separatista izan ziran **Bakion** egonekoak: ITXASALDE, MEABE, SAN ANDRES eta diziplinarioetariko bat. Maiatzaren 8ko arrastira arte **Bakion** egon ziran. Sano biotz-galduta egozan. Batzuk mendiko jagonleku batera igateari uko egin eutsoen. **Bakion** bertan il ebezan, beste milizianoeri erakutsia emoteko, aurki. Ganerako milizianoak, ostera, eurenentan ekin eta uko egin eutsoen jagonleku aretara igateko. Alan bada, azkenean, a utsik lotu zan. Erritarren lekukotzearen arabera, lau batailoietako milizianoak txarto erantzun eban zapatuan **Iatara** igateko agindua emon eutseenean.

Espainiar tropak **Bakion** basoetatik sartu ziran maiatzaren 9ko eguerdian. **Bakion** ez egoan guda mutil gorri-separatistarik, leenago anka egin ebelako. Brigada mistoko soldadu moltso bat erriko kalera jatsi eta parajetu zan, burruka bandera apaltxu bat airean eroiela. Amaibako poztasunaz artu

ebezan. Gizonak, andrak eta umeak gurtu eban espainiar banderea, munka eta negarra begietan. Iru gizon belauniko imini ziran aren aurrean, Olaskoagatar anaiak eta tradizionalismoaren zabaltzaile andia zan Manuel María Arredondo. Bederatzi ilabetean etxalde baten ostuta egon ziran eta ia inok ez dau jakin izan euren barri.

Zortzi egun leenago, udal separatistea erbestera joan zan, Bilbon a barrian eratuteko. Erri funtzionarioak beragaz eroan ebazan. Erria, zoriak zer ekarriko, bakar-bakarrik lotu zan, argi-indarririk ez eukala.

Gerogarrenean **Bakion** sartu ziran erreketekak poztasunez eta gedarka artu ebezan, “Arriba España-ka, atan be. **Bakion** Espainiaren aldeko sentimendu sakona igarten zan, Bermeon igarri ebenaren aurkakoaren aldean. **Bakio**, ostera erri abertzalea izan zan. Baia gorri-separatistak aurretik erabilitako errefuxiatu asko egozan bertan. Egun beratan euren ostulekueatik urten eban. **Bakion** Matías Solano Alcalde aita agurgarria egon zan ostenduta. Kaleko jantzita ibiltzen zan. **Bakion** eleizgizon eta eleizandra asko egon zan ostenduta. Baita Pérez de Arregi aita agurgarria be, Donostian sano ezaguna.

Bakion etxe guztiak oso-osorik egozan. Tiro otsak birritan baino ez ziran entzun, eta eurok aurreko astean, atan be. Miliziano batek fusila artu eta txankan tiro egin eutson. Beste tiroak miliziano bi ilteko izan ziran, jagonleku batera igateari uko egin eutsoelako.

Donostiatik anka egindako errefuxiatu batzuk egon ziran **Bakion**, komentu baten egon ziran aterpetuta. Nazionalak errian sartu orduko, ez egozan inon, egun batzuk leenago anka eginda egon ziralako. Itsasoaren ondoan kooperatiba separatista batek egindako etxebizitza moltsoa egoan. Bertan abertzalerik garrantzitsuenak biziten ziran.

Bakion ez zan egon goseterik. Esne eta arrautza ugari egoan etxaldeetan. Ostera, ez zan orgirik, ez oriorik ez eta bear-bearrezkoak ziran beste jakirik egon.

Arrastian, ogiz betetako zakuak eroiazan kamioneta bat sartu zan **Bakion**. Aren atzean arineketan egiten eban umeak “Arriba España” gedarka ibili ziran. Tropa nazionalak **Bakion** sartu eta gero, Gipuzkoa eta Bizkaiko gobernadore orokorra zan Arellano jaunak agindu eutsen erritarrentzako ornikuntza zerbitzuak eratuteko Bizkaiko komisario

karlista zan Hearle jaunari, Unibaso kapitaiari eta Bizkaiko Erreketeko kide garrantzitsuenetarikoa batzueri. Andik gitxira, erritarren bearrizanak ostalduteko neurriak artuteko **Bakiora** parajetu ziran areek. Neguko Laguntasuna izenekoa atondu eben.

Goizeko leenengo orduetan Bilbotik txirringulari bat eldu zan **Bakiora**, guda lerroak igaro eta gero. **Bakiora** onik eldu zan, paparrean ezauzgarri abertzalea eroan eta besapean egunkari bat ekarrala.

Ez zan ikusten arerioaren tropen mobimenturik ez eta tanke areriorik be. Euskal tropak defentsa le-
rro batera egin eben atzera, bertan erasoari gogor aurre egiteko asmoaz.”

Argibide batzuk

Frecce Nere (gezi baltzak), italiar-espainiar erregimentu mistoa zan. Ofizialak batez be italiarrak ziran bitartean, guda mutilak espainiarrak ziran geienak, Extremadura eta Galizakoak. Euren afiliazio politikoa faxismo-falangismoa zan.

Manuel María Arredondo, Bizkaiko Tradición Falangista izeneko alderdiko buruetarikoa eta aren zabaltzaile sutsua zan. **Bakion** egon zan ostuta, **Bella-Bistako** Olaskoagatar anaiakaz batera (beraren lobak). **Bakio** Bella-Bistako Pilar Goitiagaz

egoan ezkontuta eta, osterantzean, Bilbon biziten zan. 1937ko maiatzaren 10ean **Bakio** udal gestora-
ko alkate izentau eben, erriko leenengo alkate faxista izan zala. Urte beratako bagilaren 22an, ostera, **Bakio** itxi eban, Bilboko udaleko gestoran kide izentau ebelako, José María de Areilza Bilboko leenengo alkate faxistearen agindupean, atan be⁸.

Olaskoagatar anaiak, Bella-Bistako semeak, biak karlista sutsuak ziran. Euretari-
ko batek, Anastasio Olaskoaga Goitia, erreketek zala, Lleida-ko Tremp-eko burrukaldian galdu eban bizia 1938ko abenduaren 26an. Bestea José Antonio Olaskoaga Goitia zan. Bion ama Carmen Goitia, Bella-Bistakoa, izan zan⁹.

Ondorio batzuk

Tropa faxistak **Bakion** sartu ziranean, erria utsik egoan, askok iges eginda eta beste batzuk etxeetan sartuta, bildurrez, seguru antzean. Ume gitxi batzuk baino ez ei ebezan kalean ikusi eta ortik gora, iru gizon besterik ez jakezan parajetu ondo etorria egiteko, bi errikoak, bestea kanpotarra, falangistea au eta karlistak areek biak, irurak eurenentan sutsuak.

Ori dala-eta, Espainiaren aldeko sentimentua igarri ei eban barriemoiletariko batek, Bermeon ondo etorria egiten bidera inok ez eutsuelako urten, aurki. Baia, onartu egiten eben **Bakion** erritarrik



geienak abertzaleak zirana.

Bateko, **Bakion** Donostiatik joandako errefuxiatuak bertan egonak izan ziran, baia faxistak eurak errian sartu orduko, barrian anka eginda egozan. Ortik aurrera, besteko, eskoitar, eleizgizon eta eleizandra batzuk be errefuxiauta egon ziran **Bakion**, Bilbotik urtenda, **Bakio** leku segurutzat eukelako, antza. **Bakion** inok ez eutsen ezelango kalterik egin, bes-tertara baino, euren eleizkizunak egiteko askatasun osoz ibiltzen ei ziran.

Faxistak eldu ziranean, ez egoan gudaririk edo milizianorik errian, aurreko egunerik **Iatako** lubagietan gordeta egozalako. Errian ez zan egon burrukaldi eta lapurretarik, etxe guztiak oso-osorik egozan eta.

Azkenik, **Bakion** ez ei zan goseterik ezagutu, bear-bearrezkoak ziran jaki batzuk eskura egon ez arren eta argi-indarrik egon ez arren.

Iniaki MARTIARTU
2012ko bagilean, **BAKIO**



BIBLIOGRAFIA ETA ITURRI DOKUMENTALAK

- (1) EUZKADI 7.598 zk. - 1937.05.04 eta 0284/016 Libro de salida de documentos 1932-1937, azken au Bakioko Udal Agiritegian
- (2) BERMEO Y LA GUERRA CIVIL. LA BATALLA DE SOLLUBE, Francisco Manuel Vargas Alonso, EUSKO IKASKUNTZA, 2007. (291., 292. eta 464. orr.)
- (3) BERMEO Y LA GUERRA CIVIL. LA BATALLA DE SOLLUBE, Francisco Manuel Vargas Alonso, EUSKO IKASKUNTZA, 2007. (305. orr.)
- (4) DOBLE DIARIO DE LA GUERRA CIVIL 1936-1939, IV TOMOA, 30 zk., ABC, EDITORA PRENSA ESPAÑOLA, 1979. (7. orr.)
- (5) LA VOZ DE ESPAÑA, 200 zk. - 1937.05.11.
- (6) UNIDAD, 202 zk. - 1937.05.12.
- (7) PENSAMIENTO ALAVES, 1.327 zk. - 1937.05.10
- (8) 0008/001-BAKIO Libro de actas municipales 1933-1937 eta 0002/002-BAKIO Libro de actas municipales 1937-1939, biak Bizkaiko Foru Aldundiko Agiritegian.
- (9) 010/001-BAKIO Papeles varios 1947-1949 eta 0002/002-BAKIO Libro de actas municipales 1937-1939, biak Bizkaiko Foru Aldundiko Agiritegian, eta 0374/002-00 Difuntos 1920-1970, Bizkaiko Eleizearen Historia Agiritegian, eta 0009/003-JUZGADO Libro de defunciones 1930-1954, Bakioko Udal Agiritegian.

Maitemindu baten berba gozoak

-1-

Utzi eidazu, Maite,
zuri begiratzen,
ta zure begi ederrak
bertatik ikusten.
Zelan goizeko izarrak
lurra dau poztutzen,
alantxe begiradaz,
nauzu lilluratzen.
Pozez, asi nintzake
bionak trukatzten.

-2-

Urbildu eidazuz, Maite,
zure ezpan xamurrak,
ta emoidazuz legunki,
musutxu luzeak.
Sagar gorri antzeko,
dira zure ezpanak,
agoaz mamurtuta,
atsegin diranak.
Olan goza daiguzan
egun ta egunak.

-3-

abal eidazu bularra,
biotza ikuitzeko
bere sugar bizian
ni be sukartzeko.
Ikusten da zarala,
sumendi antzeko,
maitetasun garbian
biok alkartzeko,
aldi baten lurrean,
zeruan betiko.

-4-

Luza eidazuz, Maite,
zure esku ta besoak,
artista edergilleak,
bikain eindaakoak.
Nakarrezko kolorez
txit diztiratsuak,
urgañean arraiak
dituan egalak,
dantzaldietarako
maite besarkadak.

-5-

Ez dodaz ixilduko
beñolako andreak,
Jesusi berberari
bota eutsozanak:
"bedeinkatuak bitez,
sabel ta bularrak,
sortu ta edoskitu
ongi zaituztenak".
Egunen baten, Maite,
entzun zeunkezanak.

-6-

Zuaitz lerdan mardulak
maiz ditut ikusten,
baña zure añaikotik,
iñon ez arkitzen.
Zoragarria zara
zuzen eta garden,
azal eta mamiar
begiak asetzen,
altxor bat be barruan
dozula izkutatzten.

-7-

Zure gorputz liraña
 billustu idazu,
 ta bere itxura ederra
 erakus eidazu.
 Aurrez ederra ba da
 atzez obe dozu,
 beragan mirariak
 egiten dakizu,
 ta bizidun barriak
 eratzen dituzu.

-8-

Lora txorta eder bat
 dozu buru gañan,
 ille mataza batuz,
 burestun antzean.
 Ederki orrazturik,
 bukleak dilin dan,
 ikuskizun bikaña
 goitik berañon,
 alangoa ikus leike
 bakarrik zeruan.

-9-

Nai neuke itz goxoak
 egizta daitezán
 gora berak gainduta,
 maitasun bidean:
 batera gozatuaz,
 batera neketan,
 batera lora berrik
 landatuz baratzen,
 batera atseginetan,
 bizi az munduan.

-10-

Baña egunen batez,
 alantxe bearrez,
 bata edo bestea,
 aldatu geintekiz.
 Gure neuke, orduan,
 joatea aurrez,
 Jainkoaren etxean,
 zuri itxaronez,
 biok alkartu arte
 pozik betiraunez.


EMALDIK
 Bil.2012.08.3

Euskaldun barrientzat ikasten

Sudoku

	9	1		8				2
		3	9	4		1	8	6
2	6	8	5	1		7		
6					1		7	9
8		9	6	7	4	3		5
3	7		8	5	9	6	4	
5	2							8
9		6	1		8	4		
	8			9	5	2		

3	6	2	5	9	4	7	8	1
9	3	6	1	2	8	4	5	7
5	2	4	3	6	7	9	1	8
3	7	2	8	5	9	6	4	1
8	1	9	6	7	4	3	2	5
6	4	5	2	3	1	8	7	9
2	6	8	5	1	3	7	9	4
7	5	3	9	4	2	1	8	6
4	9	1	7	8	6	5	3	2



IPUIN SARIKETA (BILBAOKO UDALAREN BABESPEAN)



IRABAZLEEN IZENAK

1. Saria. Jose Mari MURUA
2. Saria. Palmi MERINO
3. Saria. Asier LEGARRETA
4. Saria. Aurora LOPEZ
5. Saria. Alfonso EZKUDIA

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

**Oilarra kanta kantari
kukurruku kukurruku
kale jiran dabilta
kukurruku kukurruku.**

**Eguberri jaiak ospatzen
kukurruku kukurruku
Jesus jaio da Belenen
kukurruku kukurruku**

**Atzetik txitoak ere,
pio pio pioka!
Atzekoei ezin segi,
pio pio pioka!**

**Eguarri gaua ospatzen,
pio pio pioka!
Jesus jaio da Belenen,
pio pio pioka!**

